



Arartekoaren 2021R-442-21 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 16koa. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatu zaio etxebizitzarako prestazio ekonomikoagatik behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli behar direla deklaritzen duen Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa ezesten duen Etxebizitza sailburuordearen ebazpena berrikustea.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar baten kexa bat. Kexa horren bidez, adierazi zuen ez zegoela ados etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzearekin batera prestazio subsidiarioa azkendu izanarekin, ez eta behar ez bezala jasotako prestazio ekonomikoen kontzeptupean 7.000 € itzultzeko eskatzeko Etxebizitzako Bizkaiko lurralde-ordezkariek hartutako erabakiarekin ere.

Zehazki, kexagileak kexa-idazkian adierazi zuen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dagoela 2014az geroztik. Halaber, % 68ko desgaitasuna aitortuta duela eta, osagarri gisa, ekainaren 18ko 1276/1982 Errege Dekretuaren bidez aitorturiko familia-laguntza ekonomikoa jasotzen duela azaldu zuen. Azkenik, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortu zion 2018ko urriaren 18ko ebazpenaren bidez, 2018ko irailetik aurrerako ondorioekin. Horrela, botere publikoek ezin izan ziotenez etxebizitza bat eskuratu, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa aitortu zioten, subsidiarioki.

2. Hala ere, 2021eko otsailaren 22an, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek kexagilearen etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzea erabaki zuen. Aipaturiko erabakian adierazitako arrazoia hirugarren zuzenbideko oinarrian jaso zen, honela:

"...se constata que los ingresos ponderados de (...) durante el ejercicio 2019 son 11.294,64 euros, por tanto, superiores al límite máximo de 9.000 euros para una unidad de convivencia de un miembro. También se comprueba que durante los ejercicios 2017 y 2018 sus ingresos fueron la misma cantidad, 11.294,64, por tanto, no cumplía con el requisito de ingresos desde el reconocimiento de la prestación."

Erabaki horrek Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek behar ez bezala jasotako zenbateko batzuegatik 7.000 € eskatzen zituen prozedura abiarazi zuen. Zenbateko hori prestazioa aitortu zen datatik (2018ko irailetik) 2020ko abendura arteko tartean jasotako prestazioei dagokie.





Erabaki horren aurrean, kexagileak desadostasuna adierazi zuen Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren jarduketarekin. Hala ere, kexagilearen ustetan Ordezkaritzak informazio ekonomiko guztia zeukan eskubidea aitortzeko unean, eta informazioaren kontrolean izandako ardua falta da gaur egun 7.000 € itzultzeko egin dioten eskaeraren arrazoi bakarra. Hain zuzen ere, gertakari zehatz hori egiaztatzeko asmoz, kexagileak 2017ko abenduaren 19an bere diru-sarrereren berri emateko Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzari bidalitako idazki bat aurkeztu zuen. Nolanahi ere, 2018ko urriaren 18an, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta prestazio ekonomiko osagarria aitortzearen aldeko ebazpena eman zuen.

3. Horrenbestez, eskubideak azkentzea eta 28 hilabetez jasotako prestazioak itzultzea ezartzen zuen ebazpenarekin bat ez zetorrenez, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen.

Idazkian, kexagileak Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariekin erabakiak eragindako nahasmena azpimarratu zuen. Zehazki, itzultzeko eskatzen zioten zenbatekoa eta eskubide subjektiboa aitortzeko arrazoia azpimarratu zituen, bai eta 2018an, 2019an eta 2020an jasotako prestazio osagarria ere, baldin eta 2017 urtean prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez bazituen .

Era berean, adierazi zuen bere diru-sarrerak ez zutela aldaketa handirik izan 2017. urteaz geroztik. Hala ere, kexagileak berriz ere jakinarazi zuen % 60ko desgaitasuna aitortua zuela eta, osagarri gisa, ekainaren 18ko 1276/1982 Errege Dekretuaren bidez aitorturiko familia-laguntza ekonomikoa jasotzen zuela. Laguntza horrek 10 € egin zituen gora azken hamar urteetan.

Are gehiago, merkatu librean etxebizitza bategatik hilabete bakoitzeko 550 euroko errenta ordaintzen zuela azaldu zuen.

Horregatik guztiagatik, bere alegazio-idazkia onartzeko eskatu zuen, bai eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzeko ebazpena eta behar ez bezala jasotako prestazioengatik 7.000 € itzultzeko prozedura hasteko erabakia ondoriorik gabe uzteko ere.

4. Alegatutakoari erantzuna emanez, 2021eko martxoaren 16an Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek eskubidea aitortzeko prestazio osagarria itzultzeko espedientea ebatzi zuen soilik, eta etxebizitza duin eta egoki bat legez hartzeko eskubide subjektiboa aitortua izan zuen 28 hilabetez zegozkien 7.000 euroak ordaintzeko betebeharra ezarri zion kexagileari.





Eskubidea azkentzeko ebazpenean baliatutako arrazoiei dagokienez, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek honako arrazoi hauetan oinarritu zuen ebazpena:

"...durante los ejercicios 2017 y 2018 y 2019 los ingresos de (...) fueron superiores al límite máximo de 9.000 euros para una unidad de convivencia de un miembro, la cantidad abonada desde septiembre de 2018 a diciembre de 2020 debe ser reintegrada."

5. Kexagilea ez zegoenez ados Bizkaiko lurralde-ordezkariek harturiko erabakiarekin, 2021ko martxoaren 26an, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen.

Bere idazkian, kexagileak aurreko idazkietan adierazitako gogoetak azpimarratu zituen, eta 7.000 € itzultzeko betebeharra ezartzen duen Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariekaren ebazpena indargabetzeko eskatu zuen.

Aurkeztutako errekurtsioari erantzunez, 2021eko uztailaren 23an Etxebizitzako sailburuordeak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezestearen inguruko 2021eko uztailaren 15eko ebazpena jaso zuen. Ebazpena oinarritzeko arrazoiaren artean sailburuordeak hurrengoak aipatzen ditu:

"En el supuesto que nos ocupa, examinado el expediente se comprueba durante los ejercicios 2017, 2018 y 2019 los ingresos de Dña. (...) fueron superiores al máximo de 9.000.-€, por lo que la cantidad abonada desde el mes de septiembre de 2018 a diciembre de 2020, debe ser reintegrada, independientemente de que el cobro indebido no sea imputable a Dña. (...)."

6. Azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak lankidetzaren eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Arartekoak, bere idazkian, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion; horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

7. Horri erantzunez, 2021eko maiatzaren 3an, erakunde honen erregistroan sartu zen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Sailburuaren Kabineteko zuzendariaren erantzuna; eta Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzako Administrazio eta Zerbitzuen arduradunak egindako txostena erantsi zitzaion horri.

Igorritako idazkian, sailburuaren kabineteko zuzendariak baieztatu egin zituen aurkeztutako egitateak eta Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzaren ebazpena berretsi zuen, bai etxebizitzarako prestazio ekonomikoa azkentzeari





dagokionez baita aitortua izan zen denbora guztian zehar behar ez bezala jasotako prestazioen kontzeptupeko 7.000 euroak itzultzeari dagokionez ere.

Edonola ere, igorritako erantzunean, Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak honako hau jakinarazi zion Arartekoari:

“...la Resolución por la que se pretende la devolución de cantidades debidamente percibidas está sujeta a revisión porque ha sido recurrida.”

Arartekoari jakinarazitakoaz gain, Etxebizitza sailburuordeak gora jotzeko errekurtsua ezetsi zuen 2021eko uztailaren 15ean.

8. Hortaz, egitate eta zuzenbide-oinarri nahikoak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egin dira:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak berak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Testuinguru horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen (aurrerantzean, EL) 7. artikulua etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta etxebizitza edo bizitoki bat legez okupatzeko eskubidea aitortzen die administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsona guztiei.

Eskubide hori betetzeko moduei dagokienez, ELaren 9. artikulua lehentasunez aurreikusten du etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat alokairu-erregimenean jartzea.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ez dagoenean soilik, eta modu subsidiarioan, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarriz gauzatu ahal izango da etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzea.





3. Gaur egun, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa deritzona aitortzeko betekizunak labur-labur jasota daude ELaren laugarren xedapen iragankorrean.

Laburbilduz, bi dira etxebizitzarako prestazio ekonomikoa aitortzeko eskatzen diren funtsezko betekizunak. Alde batetik, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa gutxienez lau urteko antzinatasuna behar bezala egiaztatzea. Bestetik, bizikidetzta-unitatearen berezko osaeraren arabera zenbateko jakin bat gainditzen ez duten diru-sarrera haztatuak justifikatzea.

Nolanahi ere, legegile autonomikoaren borondatea izan zen aipaturiko eskubide hori eta prestazio subsidiarioa erregelamendu bidez garatzea, eskubidea aitortzeko sistema beharrezko segurtasun juridikoaz hornitzeko.

Gai zehatz horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du Eusko Legebiltzarrak, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzko 12/2017 Legez besteko Proposamenean¹, Eusko Jaurlaritzari hau eskatu ziola:

“...bederatzi hileko epean garatu dezala Etxebizitzaren 3/2015 Legeak jasotzen duen etxebizitza- eskubide subjektiborako irispidea arautzeko dekretua. Hori egin dezala kolektiboei, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har irekita egongo den herritarren parte-hartzerako prozesu baten markoan, eta ahal beste sentsibilitate eta kasuistika jasotze aldera”.

Era berean, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboaren eta prestazio osagarriaren araubide juridikoa definitzeko beharra nabarmendu du Arartekoak Eusko Legebiltzarrari zuzendutako urteko txostenetan².

Azaldutako guztia gorabehera, Arartekoak kezka egiaztatu du eskubidearen arauzko garapena eta dagokion prestazio osagarria ere ez daudela jasota Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartutako Urteko Araugintza Planean³.

¹ **Eusko Legebiltzarra.** 12/2017 Legez besteko Proposamena, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzkoa. Jatorrizko ekimena: 11\11\02\01\00049.

² Ikusi: Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2016. urtekoa (192. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2017. urtekoa (190. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2018. urtekoa (186. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2019. urtekoa (188. or.); eta Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2020. urtekoa (197. or.)

³ **Gobernu Kontseilua.** [2021eko apirilaren 13an hartutako erabakia](https://bideoak2.euskadi.eus/2021/04/13/news_68157/Eranskina.pdf). Hemen eskuragarri: https://bideoak2.euskadi.eus/2021/04/13/news_68157/Eranskina.pdf



Zehazki, Arartekoak bere iritzia emateko aukera izan du araudi-garapen faltaren inguruan eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2021eko ekainaren 14ko⁴ eta uztailaren 9ko⁵ ebazpenetan eskubidearen inguruko arauketarako instrukzioaz egindako erabileraz.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bi ebazpenetako bat ere onartu ez izana deitoratu zuen Arartekoak.

4. Kasu zehatz honi dagokionez, kexagileak pertsona bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen du. Etxebizitzari buruzko legearen laugarren xedapen iragankorrean agindutakoarekin bat etorriz, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzeko gehienezko diru-sarrera haztatuak ezin dira 9.000 € baino gehiagokoak izan.

Espedientean dagoen dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du kexagileak une oro jakinarazi zituela bere urteko diru-sarreraren zenbatekoak. Izan ere, honako hau jakinarazi zion 2017ko abenduaren 19an Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzari:

"...soy una mujer de 56 años con una minusvalía del 68% (...) vivo con una ayuda familiar complementaria de 931,89 (€), la cual tengo que destinar para alquiler y gastos. Pago 550 (€) de piso."

Are gehiago, eskubidea aitortzeko bere eskaera izapidetzeko unean bere diru-sarreraren inguruko informazioa jakinarazi zuen beste behin eta ez zuen inolako oztoporik jarri Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak aitortutako diru-sarrerak egiaztatzeko.

Azken batean, testuinguru zehatz horretan Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariek 2018ko urriaren 18an ebatzi zuen etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzea, irailetik aurrerako ondorioekin..

⁴ **Ararteko.** Arartekoaren 2021R-2222-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkendu dela eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli behar direla deklaratzeko duen ebazpen bat berrikus dezala. Linean eskuragarri: www.ararteko.eus

⁵ **Ararteko.** Arartekoaren 2021R-981-21 Ebazpena, 2021eko uztailaren 9koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatu zaio etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkendu dela eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli behar direla deklaratzeko duen ebazpen bat berrikus dezala. Linean eskuragarri: www.ararteko.eus

5. Aurrez adierazitakoaren arabera, Arartekoak nabarmendu nahiko luke eskaera izapidetu aurretik kexagilearen urteko diru-sarrerak ezagututa ere Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak eskubide subjektiboa eta prestazio osagarria aitortu izana.

Hain zuzen ere, Ordezkaritzatik, 2021eko otsailaren 22ko ebazpenean, honako hau jakinarazten da: *“se comprueba que durante los ejercicios 2017 y 2018 sus ingresos fueron de la misma cantidad, 11.294,64 euros, por tanto, no cumplía con el requisito de ingresos desde el reconocimiento de la prestación.”*

6. Puntu jakin horretan, eta jarduera garatzeko jarraitu behar dituzten esku-hartzeko printzipioen arabera, beharrezkoa da azpimarratzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 4. artikuluaen arabera:

“1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertzuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.

2. Administrazio publikoek zainduko dute aplikatu beharreko legerian aurreikusitako betekizunak bete daitezela. Horretarako, zeinek bere eskumenen barruan eta datu pertsonalak babesteko legerian ezarritako mugekin, beharrezkoak diren egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, zenbatespenak eta gainerako inguruabarrak begiratu, egiaztatu, ikertu eta ikuskatu ahalko dituzte.”

Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 110. artikulua honako hau ezartzen du Administrazioak berrikusteko dituen ahalmenei dagokienez:

*“...baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako **bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.**”⁶*

⁶ Arartekoarena da enfasia.

7. Adierazitakoaren harira, garrantzia berezia du esku artean dugun kasurako *Čakarević Kroaziaren aurka kasuak*⁷.

Adierazitako kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak kasu bat aztertu zuen, eta bertan Kroaziako Administrazioak langabezia-prestazioa ordaintzen jarraitu zuen, hasiera batean eman zitzaion legezko epeaz kanpo. Hala ere, horrek, Kroaziako Administrazioak, akatsez jabetuta, behar ez bezala ordaindutako kopuruak itzultzea eskatzea ekarri zuen.

Hain zuzen ere, Kroaziako Administrazioak adierazi zuen bidegabeko aberastea gertatu zela, langabezia-prestazioa akats batengatik ordaindu zuten gutxi gorabeherako hiru urteko luzapenaldian.

Kroaziako auzitegien babes faltarekin ados ez zegoenez, kexagileak erreklamazio bat jarri zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean, Hitzarmenaren 1. protokoloaren 1. artikuluan oinarrituz, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak babestekoa dena. Zehazki, Kroaziako enplegu-zerbitzuaren jarduketak bere jabetzarako eta bere ondasunaz gozaten jarraitzeko legezko itxaropenerako eskubidea urratzea ekarri zuen.

Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, bere erabakian zehar, ebaluatu zuen ea Kroaziako Administrazioak akats baten ondorioz ordaindutako dirua itzultzeko zuen betebeharrak betetzen zituen 1. Protokoloaren 1. artikuluan jasotako eskakizunak.

Zehazki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egoerak zuzenbidea behar bezala ezarrita zegoela pentsaraztera (legitimoki) eraman ote zezakeenaren inguruan mugatzen du eztabaida, eskaera egiten duen pertsonak prestazioa bizirauteko bere oinarritzko beharrak asebetetzeko laguntzat jotzen zuen unean ebaluatua izan beharrez.

Azken batean, Auzitegiak Kroaziako Administrazioak xede legitimo bat jarraitzen ote zuen adierazi du eta ea xede hori proportzionatua zen.

Argigarria denez, aipatu beharra dago GEEAk uste duela norbanako batek bere aldekoa den administrazio erabaki irmo baten baliozkotasuna argudiatzeko eskubidea izan beharko lukeela, eta baita jadanik horren arabera hartu diren gauzatze neurriak ere, betiere onuradunak edo bere izenean aritu den inork erabaki hori gaizki hartzea edo zuzen ez aplikatzea ez badute ekarri. Azken batean,

⁷ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** 2018ko apirilaren 26ko epaia. Čakarević kasua Kroaziaren aurka. *Application no. 48921/13* erregistro zenbakia. Eskuragarri hemen: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-182445>



Auzitegiaren arabera igurikimenak ez dira atzera begira zalantzan jarri behar (*ex tunc*) eta legezko bezala aitortu behar dira.

Azaldutakoa ikusirik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatzen du zenbait inguruabar daudela, auzi-jartzailearen itxaropena 1. Protokoloaren 1. artikulua babesten zuela onartzeko.

- Lehenik eta behin, GEEAn mahaigaineratutako aferan egiaztatu zen demandatzaileak bere jokabidearekin prestazioen ordainketan eragin ahal izanaren inguruko zantzurik ez zegoela.
- Halaber, erreklamatzailerak une oro fede onarekin jardun zuela egiaztatu zen.
- Azkenik, hilero ordainketak egiten jarraitzen zuten bitartean administrazio publikoak erreakzionatu gabe epe luzez egon zirela egiaztatu zen. Hain zuzen ere, Auzitegiaren ustetan azken alderdi hori erabakigarria da demandatzaileak aipatutako zenbatekoak jasotzeko eskubidea zuela uler zezan.

Laburbilduz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak auzi-jartzaileari eskaturiko babesa emanaz amaitu du bere esku-hartzea; egiaztatu baitu bidegabe jasotako zenbatekoen sorreran erantzukizuna izan zuen bakarria administrazio-agintaritza izan zela, beren-beregi. Auzitegiaren arabera Kroaziako agintariek ez zuten bete garaiz eta egoki jarduteko betebeharra.

Are gehiago, erreklamatzaileraren egoera pertsonalarekin bat etorritz, Auzitegiak adierazten du langabezia-prestazioengatik jaso zuen zenbatekoa oso xumea dela eta demandatzailearen bizirauteko gastuak ordaintzeko erabili zela egiaztatu dela.

8. GEEAren epaia egiaztatuta eta esku artean dugun erreklamazioarekin dituen antzekotasunak ikusita, Arartekoak gogorarazi du epaian azaldutako guztiak botere publikoak behartzen dituela ordenamendu juridikoa osatzen duten nazioarteko itun eta akordioen arabera (Konstituzioaren 96. artikulua), eta Konstituzioan onartutako oinarrizko eskubideen interpretazioaren berri ematen dutela (10.2 artikulua).

Hain zuzen, jurisprudentziako jarrera hori Bartzelonako Lan arloko 26. Epaitegiaren 2018ko ekainaren 5eko epaian jaso da dagoeneko. Zehazki, epaitegiak Giza Eskubideen Europako Auzitegiak defendatutako tesia onartzen du, eta honako hau xedatzen du:



*"...los errores imputables exclusivamente a las Autoridades estatales no deberían subsanarse a expensas únicamente del interesado (...) Y que debe tenerse presente, especialmente, si la Administración ha cumplido con un esencial principio de buena gobernanza, llegando a la conclusión de que (...) la Administración no cumplió su deber de actuar a tiempo y de manera apropiada y coherente, no considerando proporcionado que se reclame a (...) la totalidad de las prestaciones indebidamente percibidas (...), sin establecer responsabilidad alguna de la Administración."*⁸

9. Esku artean daukagun erreklamazioan, Arartekoak egiaztatu du kexagileak bere urteko diru-sarreraren inguruko informazioa eman zuela eskubidea aitortzeko eskaera izapidetu aurretik. Era berean, ez zuen inolako oztoporik jarri Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak aitortutako diru-sarrerak egiaztatzeko.

Adierazitakoa gorabehera, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko kexagilearen eskubide subjektiboa aitortzea ebatzi zuen 2018ko urriaren 18an horren ondorioek iraileko hilari ere atzeraeraginez.

Hala ere, prestazio osagarria bi urtez baino gehiagoz jasotzen egon ondoren, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariek ebatzi zuen eskubide subjektiboa azkentzea 2021eko abenduaren 22ko ebazpenaren bidez eta 7.000 euro itzultzeko eskatzea 2021eko martxoaren 16ko ebazpenaren bidez. Hori guztia, bi urte igaro ondoren, honako hau egiaztatzeagatik: *"no cumplía con el requisito de ingresos desde el reconocimiento de la prestación."*

Ondorioz, ebazpenean adierazi den modura, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak inolako adierazpenik egin ez izanak ziurtasun bat sortu du kexagilearengan etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren inguruan.

Gainera, ez da alde batera utzi behar Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak urtero eskatzen duela baldintzen betearazpenaren egiaztapena ekainaren 25etik eta uztailaren 5era bitartean.

Aurrekoa aintzat hartuta eta GEEAren jurisprudentziak adierazitakoari jarraiki, ez da zilegi prestazioaren ordainketaren gaineko kontrolean egondako zaintza falta erreklamatzailari egozte.

⁸ **Bartzelonako Lan Arloko 26. Epaitegia.** ECLI: ES:JSO:2018:3749. Eskuragarri hemen: <http://www.poderjudicial.es/search/contenidos.action?action=contentpdf&databasematch=AN&reference=8540613&links=&optimize=20181022&publicinterface=true>



Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berrius dezala 2021ko uztailaren 15eko erabakia (horren bidez, Etxebizitzako sailburuordeak etxebizitzarako prestazio ekonomikoa azkentzeko eta 7.000 € itzultzeko Bizkaiko Etxebizitza lurralde-ordezkararen ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa ezesten zen).

Edonola ere, Arartekoak eskubide subjektiboaren aitopeneri eta prestazio osagarriari dagozkien izapide eta berriuspenetan behar bezala jarduteko beharra helarazten dio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari. Hori guztia erreklamazio honetan adierazitako egoerak saiheste aldera.

